

# Getariako emakumeen eta gizonen berdintasunerako I. plana

2022ko urria



# Aurkibidea

Lege markoa.....	3
EAEko 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasuna lortzeko eta Emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legea .....	3
EAEko Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako VII. Plana.....	4
Metodologia eta prozesua.....	5
Prozesuaren deskribapena .....	5
Emakumeen eta gizonen berdintasunerako I. Plana.....	8
Planaren xedea, printzipioak eta bermea.....	8
Esku hartze eremu, helburu eta ekintzen laburpena.....	9
Helburuak, neurriak, epeak eta arduradunak.....	12
Antolaketa ereduak eta baliabideak .....	18
Egitura .....	18
Aurrekontua .....	19
Jarraipen eta ebaluaziorako sistema .....	20
Jarraipena, ebaluazioa eta eguneratzea.....	20
Adierazleak.....	21
PDCA ZIKLOA .....	21

## Lege markoa

Arau esparruan nazioarteko araudiak, Espainiako estatuko araudiak eta EAEko arau eta planek osatutako arau eremu zabalak babesten dute emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eta hori erdiesteko politika publikoen beharra. Are gehiago, zuzenean udal berdintasun politiken garapenerako eginkizuna ere arautua ikus dezakegu xedapen horietako hainbatetan. Hala nola, hauetan:

- Europako Gutuna Emakumeek eta Gizonen Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako (2006).
- 3/2007 Lege organikoa, martxoaren 22koa, emakumeen eta gizonen egiazko berdintasunerako.
- EAEko 2/1988 Legea, «Instituto Vasco de la Mujer / Emakumearen Euskal Erakundea» sortarazteari buruzkoa
- EAEko 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasuna lortzeko eta Emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legea.
- EAEko 2/2016 Legea, Euskadiko Institutuzio Lokalei buruzkoa.
- EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana.

Lege markoa bereziki indartu zen EAEko 4/2005 eta Espainiar Estatuko 3/2007 Legeen onarpenarekin, politika publikoei dagokionez, inflexio puntu bat suposatu zutelarik. Hori horrela, egitasmo honetarako 4/2005 Berdintasunerako Legea eta indarrean dagoen EAE-ko emakumeen eta gizonen berdintasunerako VII. plana izan dira erreferentziatzeko arau nagusiak.

### EAEKO 4/2005 LEGEA, OTSAILAREN 18KOA, EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNA LORTZEKO ETA EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA MATXISTARIK GABE BIZITZEKO LEGEA

Eusko Legebiltzarrak onartutako 4/2005 legeak toki administrazioek emakumeen eta gizonen berdintasuna erreala izan dadin jarraitu beharreko printzipioak eta bete beharreko eginkizunak jasotzen ditu. Lege horretan, tokiko berdintasun politiken norabidea ezartzeko elementu estrategiko gisa azaltzen da berdintasun planen elaborazioa.

Horrez gain, lege horren arabera Eusko Jaurlaritzak plan orokor bat onartu behar du, non modu koordinatuan eta globalean jasoko diren EAEko botere publikoen jarduna gidatuko duten esku-hartzeko ildoak eta zuzentarauak, emakumeen eta gizonen berdintasunari dagokionez. Aurrez esan bezala, gaur egun EAE-ko emakumeen eta gizonen berdintasunerako VII. plana dago indarrean.

Gainera, aipatu, 2022an 4/2005 legearen erreforma sakon bat onartu dela, eta horrek berdintasun plangintzen inguruko irizpideak ere gehiago zehaztu ditu. Ondorioz, orain 4/2005 legean berdintasunerako planek izan behar dituzten gutxienerako edukiak zehazten dira (15.4 artikulua):

*“(...) aipaturiko planek honako hauek izan behar dituzte, gutxienez:*

- a. Egoeraren diagnostikoa.
- b. Planak egiten feminismoaren eta emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko adituek, kolektiboek, elkarteek eta gizarte-eragileek parte hartzeko bideak, batez ere herritarrei zuzendutako planetan.
- c. Inplikaturako sailek edo arloek maila teknikoan nahiz maila politikoan parte hartzeko bideak.
- d. Aurrekontua.
- e. Egutegia.
- f. Helburuak, ekintzak eta ezarpen-, jarraipen-, ebaluazio- eta kontu emateko sistemak, dagozkien adierazleekin.”

## EAEKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO VII. PLANA

Gaur egun indarrean dagoen EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planak 4 esku-hartze eremu ditu eta Getariako I. Berdintasun Plan hau ere horien baitan egituratu dugu:

### Barne eremua



Gobernu ona

### Izaera sozialeko erronkak



Emakumeen  
ahalduntzea



Ekonomiak eta  
gizarte-antolakuntza  
eraldatzea



Emakumeen aurkako  
indarkeriarik gabeko  
bizitza

# Metodologia eta prozesua

Era honetako prozesuetan, eta kultura aldaketa bati buruz ari garenez, emaitzez gain, prozesuak berak ere berebiziko garrantzia du. Izan ere, kultura berri bat eraiki nahi dugu, denontzat justuagoa eta berdintasunean oinarritutakoa. Kultura berri horretarako bidean diagnostikoaren eta planaren diseinuak gaiaz hausnartzeko eta hitz egiteko parada ezin hobe eskaintzen dute.

Beraz, Getariako Udalean, berdintasuneko diagnostiko eta plana egiteko hausnarketa bultzatu eta gogoeta eta erabakiak partekatu dira arlo eta eremu desberdinetako langile, ordezkari instituzional eta eragileen artean, ondorengo arloetan arreta berezia jarrita:



## Parte hartzean

Prozesua zehazterakoan ondo definitu dira parte-hartzaile bakoitzaren eta parte hartzeko sortu diren gune bakoitzaren helburuak. Gainera, egitasmoaren aurkezpenean zein saio bakoitza abiatzerakoan, helburu hauen berri eman eta joko arauak zehaztu dira.



## Sentsibilizazio eta hausnarketan

Planaren urrats guztietan egin diren saioetan helburuetako bat izan da ondoren plan horren eragile izango diren pertsona guztiek sentsibilizazioa lantzea.




## Fazilitazioan

Norbanako zein taldeko prozesuak garapen egokia izateko trebezia, teknika eta lanabesak dira. Fazilitazioaren bidez taldeen zein norbanakoen helburuen eta bisioaren lorpena errazten da eta konfiantza eta komunikazio enpatikoa eta erraza oinarri duen pertsonen arteko harremanerako giroa sortzen da.

## PROZESUAREN DESKRIBAPENA

Ondorengo irudian laburbildu dugu txosten hau osatzeko burututako ibilbide teknikoa:

## BIDEORRIA



Hauek dira prozesuaren urrats nagusien inguruko zehaztasunak faseka:

### AURRELANAK

Diagnostiko prozesuko esperientzian oinarriturik fase hau zuzenean Talde Motorrarekin abiatu zen, horretarako bilera bat burutuz. Landutako aurrelanak hauek izan dira:

- **URRATSAK ETA KRONOGRAMA ADOSTU:** metodologia, metodoak, epeak eta tresnak zehaztu ziren, proiektuaren beharretara eta ezaugarrietara ahalik eta hobekien moldatzeko.
- **EKINTZAK eta ERAGILEAK ZEHAZTU:** prozesuko ekintzak, eragileak eta funtzioak zehaztu ziren. Fase bakoitzeko egitekoak eta arduradunak.
- **KOMUNIKAZIO PLANA DISEINATU:** diseinuko lan zehatzekin hasi aurretik, komunikazio egokia bermatzeko alde zuzeneko planifikazioa egin genuen. Komunikazio planean diseinuko une bakoitzean komunikatu beharreko mezuak eta horretarako kanalak adostu genituen.

### PLANAREN ZIRRIBORROA DISEINATU

Planaren I. zirriborroa Talde motorrean landu zen, horretarako 2 lan saio ziren. Lan saioetan Ongizate zinegotziak, gizarte langileak eta Emun Aholkularitzako bi teknikaririk parte hartu zuten. Lehenbiziko lan saiorako 2021ean Getariak Udalak egindako Genero Berdintasun diagnostikoaren emaitzak oinarri hartu ziren planeko helburu eta ekintzak zehazteko.

Lan saioetan jorratutakoarekin Getariako Berdintasun Planaren I. zirriborroa landu eta kontrasteetarako prestatu zen.

## KONTRASTEAK

### Udaleko langile eta zinegotziekin

Udal langile eta teknikariekin bi kontraste saio burutu ziren:

1. Saioa: Lehenik eta behin, planean talde eragilea osatuko duten udal teknikari eta zinegotziekin saio bat burutu zen (alkatea, kultura zinegotzia, kirol zinegotzia, gizarte ongizateko zinegotzia, idazkaria, kultura teknikaria eta gizarte langilea). Saioa online egin zen eta bertan antolaketa eredurako proposamenaren aurkezpena eta kontrastea burutu zen. Saioan 7 pertsonak parte hartu zuten.
2. Saioa: Ondoren, udal langile eta gobernu taldeko zinegotzi guztiei bideratutako kontraste saioa egin zen. Bigarren saio honetan ekintzen aurkezpena eta kontrastea burutu zen. Bigarren saioan 11 pertsonak parte hartu zuten.

Bi kontraste saioetan jasotako ekarpenekin Emuneko aholkulariek Getariako Berdintasun Planaren 2. zirriborroa osatu zuten.

### Herriko talde feministarekin

Herriko talde feministarekin planaren kontrasterako lansaio bat egin zen. 2. zirriborroaren kontrastea burutu zen saio horretan eta 5 pertsonak parte hartu zuten. Halaber, eragile bezala plan honen inplementazioan izango zuten funtzioz ere hitz egin zen.

Jasotako ekarpenak Talde eragilearekin kontrastatu ondoren Emuneko aholkulariekin Getariako Berdintasun Planaren 3. Zirriborroa osatu zuten.

### Herritarrek

Herritarrek eta herri eragileek ekarpenak egiteko aukera zabaldu zen. Horretarako, alde batetik, herritarrentzat plana eta ekarpenak egiteko galdetegia eskuragarri jarri ziren udaleko webgunean (formatu digitalean) eta udaleko harreran (paperean). Beste aldetik, herri eragileei berriaz planaren zirriborroarekin mezu bat bidali zitzaien. Ekarpenak egiteko aukeraren eta epearen berri eman zen tokiko hedabideetan eta udalaren webgunean. Bi ekarpen jaso ziren eta horiekin 4. zirriborroa osatu zen.

### Emakunde

Berdintasun Planaren 4. zirriborro hau Emakundera bidali da azken kontrastea egiteko. Ondoren, Emakundek egindako ekarpenak planean txertatu eta azken eredu osatuko da.

## PLANAREN ONARPENA

Behin Emakunderen ekarpenak jasota, Getariako I. Berdintasun Planaren txostena osatu eta Udalbatzan onartu da.

# Emakumeen eta gizonen berdintasunerako I. Plana

## GINARRIA: GETARIAKO BERDINTASUN DIAGNOSTIKOA

Getariako planaren abiapuntua 2021. urtean burutu zen herriko emakumeen eta gizonen berdintasun egoeraren diagnostikoa izan da, bertan identifikatutako erronkak eta egitekoek gidatu dutelarik plangintzaren norabidea. Dokumentu honetan eranskin gisa (I. eranskina) jasotzen dira diagnostikoan identifikatutako erronkak. Horrez gain, aipatutako diagnostikoaren dokumentu osoa herritar guztien eskura dago Getariako webgunean [www.getaria.eus/eu/berdintasuna/](http://www.getaria.eus/eu/berdintasuna/) helbidean.

## PLANAREN XEDEA, PRINTZIPIOAK ETA BERMEA

Getariako Udaleko I. Genero Berdintasun Planak EAeko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII Planarekin bat egin eta bertan jasotako xede, printzipio eta bermeak bere egiten ditu.

### Xedea

Plan honek Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planaren xedearekin bat eginez, Getariako berdintasun planaren xedea hau da: *politika publikoak aplikatzea bizitzaren eremu guztietan emakumeen eta femeninotasunaren mendekotasuna sostengatzen eta justifikatzen duten balioak aldatzen laguntzeko.*

### Printzipioak

Plana printzipio jakin batzuei jarraiki diseinatu da. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legean, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan EAeko botere publikoen jardura gidatu behar duten printzipio orokorrak ezartzen dira. VII. Planak horietako batzuk sakontzen eta azpimarratzen ditu, estrategikoak direlako. Horra:

- PARADIGMA FEMINISTA: Emakumeen eta gizonen desberdinkeriak eta diskriminazioak nola eta zergatik sortzen diren azaltzea eta ulertzea ahalbidetzen duen teoria eta praktika politikoa delako, printzipioetako bat izango da feminismoa.
- GENERO-IKUSPEGIA: Analisi- eta lan-metodologia modura, ikuspegi horrek agerian jartzen ditu eta, ondorioz, ekiteko moduko bihurtzen ditu emakumeen eta gizonen arteko desberdinkeriak. Hori horrela, emakumeen aurkako diskriminazioaren eragozteko neurriak hartu eta sistematikoki izango da kontuan gizonen eta emakumeen behar eta interes ezberdinak dituztela.
- EMAKUMEEN AHALDUNTZEA: Emakumeak ahalduntzea ezinbestekoa da berdintasuna lortzeko. Hori dela eta, ahalduntzea helburua, tresna eta prozesua izango da. Maila pertsonala, kolektiboa, soziala eta politikoa landu behar dira. Eta horretarako bultzada eta laguntza eskaini behar zaio hala politika eta erakundeetatik, nola antolaketaren, gizartearen eta herritarren aldetik.



- INTERSEKZIONALITATEA: Patriarkatuaren begietara emakume guztiek genero-identitate bera badute ere, guztiek ez dituzte ezaugarri berberak. Ez da berdina zuria edo beltza izan, gaztea edo adinekoa. Alegia, emakumeen aniztasuna handia da, generoa beste desberdinkeria- eta diskriminazio-iturri batzuekin (hizkuntza, klasea, etnia, jatorria, sexu-orientazio eta genero-identitatea, adina, dibertsitate funtzionala eta abar) erlazionatzean. Hori aintzat hartuta, desberdinkeriak areagotzen diren egoera horietan modu berezian lan egiteko ahalegina egingo da.

### **Bermea**

Printzipio horiez gainera, VII planak berme hauek ezartzen ditu, lana operatiboa eta eraginkorra izan dadin:

1. Benetako konpromiso politikoa
2. Aurrekontu-baliabideak, giza baliabideak eta baliabide teknikoak.
3. Gardentasunaren eta herritarrei kontu-ematearen aldeko politika.
4. Herritarren eta emakume-mugimenduen parte-hartzea eta solasaldia, bai eta eragile ekonomiko eta sozialena ere, politiken garapenean.
5. Erantzukidetasuna eta lankidetzeta, erakunde, sail eta arlo guztiena eta horietan dauden pertsonena.

Getariako Udalak horiek bere egiten ditu.

## **ESKU HARTZE EREMU, HELBURU ETA EKINTZEN LABURPENA**

Plana EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII Planaren esku-hartze eremu berdinen arabera antolatua dago:

- **Barne dimentsioa:** Bere jardunbidean emakumeen eta gizonen berdintasun printzipioa aintzat hartzen duen eta zeharkako egiten duen gobernantza sustatzeko premiari erantzutea da esku hartzeko ildo honen xedea. Lehenik eta behin, konpromiso politiko garbia hartuz eta horri erantzuteko oinarrizko egitura eta baliabideak esleitzuz: ekonomikoak, pertsonalak, trebakuntzari lotuak... Bestalde, generoak eremu guztiak bustitzen dituela gauza jakina da. Eta horrexek berak exijitzen du generoaren gaia udalaren jardunean zeharkakotasunez integratzea. Mainstreamingak, genero berdintasuna modu estrategiko, sistemiko eta iraunkorrean lantzeko bidea eskainiko digu. Horretarako barne lana ongi koordinatzea, eta beste erakunde eta eragileekiko elkarlan bideak urratzea emankorra izango da. Aipatu guztiak lantzeko helburua duen esku hartze eremu honek **Gobernu ona** izena hartzen du.
- **Kanpo dimentsioa:** barne antolaketa horren helburu nagusia da udalak Getariako herriari begira egiten dituen politiketan genero ikuspegia txeratzea gizarte berdinzale eta justuagoa lortzeko. Helburu horri bultzada emateko, planak hiru esku hartze eremu landuko ditu.
  - o **Emakumeen ahalduntzea:** Ahalduntzea betekizun eta berme bat da munduan emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko eraldaketa sozialerako: izan ere, emakumeen ahalduntzerik gabe ez dago berdintasunik (Beijineko

Adierazpenaren 13. Artikulua, 1995). Horregatik ezinbestekoa da udalak ere ahalduz hori sustatu eta bermatuko dituen bide orri bat diseinatzea. Horren bidez, alde batetik, Getariako emakumeen ahalduz indibidual, kolektibo, sozial eta politikorako prozesuak sustatu eta babestea, eta beste aldetik, prozesu horiek iraunkor egiteko urrats sendoak ematea.

- **Ekonomiak eta gizarte antolakuntza eraldatzea, eskubideak bermatzeko:** Ekonomiak eraldatzeko eta eskubide ekonomikoak eta sozialak gauzatzeko, beharrezkoa da hiru lehentasun-arlotan jardutea: lan duina emakumeentzat, genero-ikuspegidun politika sozialak eta eskubideetan oinarritutako politika makroekonomikoak. Udalen jardunak norabide horretan bere alea jartzeko neurriak hartuko ditu esku hartze eremu honetan. Horrekin batera, zaintza lanak emakumeen gain uztea naturala delako usteari aurre egiteko neurriak ere landuko dira. Izan ere, uste horrek emakumeen prekarizazioan eragin handia du: normalean ordaindu gabeko lanak izaten dira eta eremu profesionalaz ari garenean, gaizki ordaindutako lana izaten da.
- **Emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzak:** Emakumeen aurkako indarkeria giza eskubideen urraketa bat da, urraketa larria. Gizonek emakumeen aurka baliatzen dute, bakar-bakarrik horiek emakumeak direlako, eta horren jatorrian genero-diskriminazioak eta egungo gizarteredu honetan gizonek emakumeekiko duten boterea daude. Udalak, bere eskumenen baitan, indarkeria honi aurre egiteko neurriak hartuko ditu.

2023-2026 aldirako plan estrategiko honek, orotara, 16 helburu eta 66 ekintza landuko ditu genero berdintasuna helburu.

ESKU HARTZE EREMUA	HELBURUAK	AURREIKUSITAKO EKINTZA KOPURUA
1. GOBERNU ONA	1.1. Berdintasun politikak garatzeko egiturak antolatu eta elkarlan bideak garatu	5
	1.2. Politikariak eta langileak berdintasun politikak garatzeko trebatu	3
	1.3. Udalak berdintasunarekin duen konpromiso politikoa adierazi eta emakumeen presentzia bultzatu	4
	1.4. Komunikazio ez sexista eta inklusiboa gauzatzeko neurriak hartu	4
	1.5. Berdintasun politikak garatzeko aurrekontua esleitu	3
	1.6. Berdintasunerako plangintza garatu eta ebaluatu	5
	1.7. Estatistiketan eta azterlanetan genero-ikuspegia txertatzea	2
	1.8. Udal kontratazioetan eta dirulaguntzetan genero-ikuspegia txertatzea	2

2. EMAKUMEEN AHALDUNTZEA	2.1. Emakumeen ahalduntze pertsonala eta kolektiboa sustatzea	5
	2.2. Emakumeen ahalduntze soziala eta politikoa sustatzea	10
3. EKONOMIAK ETA GIZARTE ANTOLAKUNTZA ERALDATZEA, ESKUBIDEAK BERMATZEKO	3.1. Herritarrak feminismoaren inguruan sentsibilizatu eta trebatzea	2
	3.2. Genero berdintasuna oinarri duen hezkuntza eredua bultzatzea	5
	3.3. Etxeko eta zaintza lanetan emakumeen eta gizonen parte hartze orekatua areagotu eta zaintza lanetan dabiltzan pertsonen baldintza duinak bermatzea	5
4. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARIK GABEKO BIZITZAK	4.1. Sentsibilizazioa eta prebentzioa lantzea	5
	4.2. Indarkeria matxistaren biktima izan diren emakumeei arreta integrala bermatzea, ahalduntze ikuspegitik	3
	4.3. Udalak indarkeria matxistaren aurkako jarrera irmoa izan eta adieraztea	3
		<b>66 EKINTZA</b>

Hurrengo orrietan Plan Estrategikoaren ekintzak, urtekako garapena eta horien ardura nork duen jasotzen da.

## HELBURUAK, NEURRIAK, EPEAK ETA ARDURADUNAK

1. GOBERNU ONA	URTEA				Arduraduna(k)
	2023	2024	2025	2026	
<b>1.1. HELBURUA: BERDINTASUN POLITIKAK GARATZEKO EGITURAK ANTOLATU ETA ELKARLAN BIDEAK GARATU</b>					
<b>Ekintzak:</b>					
1.1.1. Berdintasunerako Talde Eragilea sortu eta hiru hilean behin koordinazio eta jarraipen bilerak burutu.					Alkatea eta idazkaria
1.1.2. Udal langileen arteko koordinazio gunea sortu eta urtean bi aldiz (martxoan eta urrian) egindako lanen berri eman eta ekarpenak jaso.					Alkatea eta idazkaria
1.1.3. Berdintasun mahaia sortzeko ideia aztertu (udala eta gizarte eragile zein herritarrek) eta bideragarria ikusten bada martxan jarri.					Alkatea eta idazkaria
1.1.4. Berdintasunerako berariaz bideratuta ez dauden batzorde/mahaien zereginen eta helburuen artean berdintasunaren sustapena txertatu. <i>Ekintza honek 2.2.2. ekintzarekin lotura du.</i>					Alkatea eta idazkaria
1.1.5. Berdinbidean parte hartzen jarraitu.					Alkatea eta idazkaria
<b>1.2. HELBURUA: POLITIKARIAK ETA LANGILEAK BERDINTASUN POLITIKAK GARATZEKO TREBATU</b>					
<b>Ekintzak:</b>					
1.2.1. Talde eragileko kideen prestakuntza beharrak (orokorrak eta espezifikoak) zehaztu eta garatu: kideak berdintasun plana garatzeko gaitzea.					Alkatea eta idazkaria
1.2.2. Emakundek, IVAPek, Berdinbideanek... urtero eskainitako ikastaroetatik, ahal dela, gutxienez bat gauzatu langile eta politikari guztiek, gaiaren eta profilaran araberak. <i>Ekintza honek 1.4.1., 3.2.4., 4.1.4. eta 4.2.3. ekintzekin lotura du.</i>					Alkatea eta idazkaria
1.2.3. Generoa eta beste desberdinkeria batzuen arteko interseksionalitatea lantzeko BILTZEN zerbitzuak egiten duen eskaintza ezagutu eta zerbitzua baliatu.					Alkatea eta idazkaria
<b>1.3. HELBURUA: UDALAK BERDINTASUNAREKIN DUEN KONPROMISO POLITIKOA ADIERAZI ETA EMAKUMEEN PRESENTZIA BULTZATU</b>					
<b>Ekintzak:</b>					
1.3.1. Esanguratsuak diren egunetan (Martxoaren 8a, Ekainaren 28a, Azaroaren 25a...) berdintasunaren aldeko aldarria egitea. <i>Ekintza honek 2.2.1. eta 4.3.3. ekintzekin lotura du.</i>					Alkatea eta idazkaria
1.3.2. Udalak dituen komunikazio euskarrien bidez (sare sozial, webgune...) berdintasun gaietan garatzen dituen ekimenen berri eman.					Alkatea eta idazkaria
1.3.3. Udalak egiten dituen agerraldi publikoetan ordezkari parekidea bermatu.					Alkatea eta idazkaria
1.3.4. Enplegu publikoko lanpostuak eskuratu, bete eta sustatzeko hautapen prozesuetako epaimahaietan emakumeen eta gizonen ordezkari orekatua bermatzea					Alkatea eta idazkaria

<b>1.4. HELBURUA: KOMUNIKAZIO EZ SEXISTA ETA INKLUSIBOA GAUZATZEKO NEURRIAK HARTU</b>				
<b>Ekintzak:</b>				
1.4.1. Hizkera ez sexista lantzeko formazioa eskaini langileei. <i>Ekintza honek 1.2.2. ekintzarekin lotura du.</i>				Alkatea eta idazkaria
1.4.2. Diagnostikoan identifikatutako hizkera sexista zuzendu eta azterketa hori osatu udalaren komunikazio euskarri nagusien azterketa eginez.				Alkatea eta idazkaria
1.4.3. Hizkuntzaren eta irudiaren komunikazio ez sexista eta inklusiboa gauzatzeko gida eskuratu/prestatu (euskara ardatz hartuta).				Alkatea eta idazkaria
1.4.4. Ordezkarri politiko zein langileen artean gida hedatu eta berau erabiltzeko jarraibideak eskaini.				Alkatea eta idazkaria
<b>1.5. HELBURUA: BERDINTASUN POLITIKAK GARATZEKO AURREKONTUA ESLEITU</b>				
<b>Ekintzak:</b>				
1.5.1. Urtero genero berdintasunera esleitzen den diru kopurua zein den aztertu eta aurrekontu orokorrarekiko zer ehuneko bideratzen den kalkulatu.				Alkatea eta idazkaria
1.5.2. Udal aurrekontuetan genero berdintasunerako partida izenduna sortu (egungo partidatik adinekoen izendapena kendu), eta baloratu zein zerbitzutan kokatuko den eta zer kontzeptu sartuko den bertan.				Alkatea eta idazkaria
1.5.3. Berdintasunerako aurrekontua emendatzen joan: lehenengo urtean egungo aurrekontua bikoiztu, guztizko aurrekontuaren %0,28 izatera iritsiz, eta hurrengo urteetan gutxienez %0,28 mantendu eta ahal dela handituz joan, %1 edo handiagoa izatera iritsi arte.				Alkatea eta idazkaria
<b>1.6. HELBURUA: BERDINTASUNERAKO PLANGINTZA GARATU ETA EBALUATU</b>				
<b>Ekintzak:</b>				
1.6.1. Berdintasun plana herritarrei aurkeztu.				Alkatea eta idazkaria
1.6.2. Berdintasun plana langile guztiei jakinarazi.				Alkatea eta idazkaria
1.6.3. Berdintasun planari jarraipena egiteko tresna bete eta ebaluazioa egin.				Alkatea eta idazkaria
1.6.4. Udalean estrategikotzat identifikatzen diren beste planetan (kultura, kirola, hirigintza...) genero ikuspegia txertatu.				Alkatea eta idazkaria
1.6.5. Planak eragindako aldaketak neurtzeko inpaktu adierazleak zehaztu eta neurtzen hasi.				Alkatea eta idazkaria
<b>1.7. HELBURUA: ESTADISTIKETAN ETA AZTERLANETAN GENERO-IKUSPEGIA TXERTATZEA</b>				
<b>Ekintzak:</b>				
1.7.1. Udalak lantzen dituen estatistika eta azterlanetan sexuaren aldagaia txertatu.				Alkatea eta idazkaria
1.7.2. Udalak lantzen dituen memoria, txosten eta abarretan datuen irakurketa sexu aldagaia aintzat hartuz egin.				Alkatea eta idazkaria
<b>1.8. HELBURUA: UDAL KONTRATAZIOETAN ETA DIRULAGUNTZETAN GENERO-IKUSPEGIA TXERTATZEA</b>				
<b>Ekintzak:</b>				
1.8.1. Udalak egiten dituen zerbitzuen kontratazioetan genero irizpide eta klausulak txertatzea, eta horiei jarraipena egitea.				Alkatea eta idazkaria

1.8.2. Udalak herriko eragileentzat egiten dituen diru-laguntza deialdietan genero irizpide eta klausulak txertatzea, eta horiei jarraipena egitea. <i>Ekintza honek 2.2.5. ekintzarekin lotura du.</i>					Alkatea eta idazkaria
---	--	--	--	--	-----------------------

2. EMAKUMEEN AHALDUNTZEA	URTEA				Arduraduna
	2023	2024	2025	2026	
<b>2.1. HELBURUA: EMAKUMEEN AHALDUNTZE PERTSONALA ETA KOLEKTIBOA SUSTATZEA</b>					
<b>Ekintzak:</b>					
2.1.1. Urtero Zarauzko eta Zumaiako jabeakuntza eskoletan parte hartu duten Getariako emakume kopuruaren datua jaso.					Gazteria, kirola eta kulturako zinegotzia(k) eta kultura teknikaria
2.1.2. Gutxienez urtean ikastaro bat antolatu herriko emakumeen interesei erantzunez (interes berri izateko emakume kolektibo ezberdinekin hartu eman zuzena). <i>Ekintza honek 4.1.5. ekintzarekin lotura du.</i>					Gazteria, kirola eta kulturako zinegotzia(k) eta kultura teknikaria
2.1.3. Azken urteetan ikastaroetan parte hartu duten emakumeen arteko topaketa bat antolatu, elkar ezagutu eta harremanak landu, ikastaroak baloratu eta proposamenak jasotzeko.					Gazteria, kirola eta kulturako zinegotzia(k) eta kultura teknikaria
2.1.4. Emakume kolektibo ezberdinek (emakume migratuak, landa eremuko emakumeak, aniztasun funtzionala duten emakumeak, ama bakarrak, etab.) jasaten dituzten askotariko diskriminazioak kontuan izan eta horiek ekiditeko neurriak hartu antolatzen diren ikastaro eta ekintzetan.					Gazteria, kirola eta kulturako zinegotzia(k) eta kultura teknikaria
2.1.5. Emakume ezberdinen arteko sareak sortzen jarraitu (esaterako emakume migratuen eta EHN jaiotakoaren artean) eta bertatik irteten diren ideia eta beharrei erantzun.					Gazteria, kirola eta kulturako zinegotzia(k) eta kultura teknikaria
<b>2.2. HELBURUA: EMAKUMEEN AHALDUNTZE SOZIALA ETA POLITIKOA SUSTATZEA</b>					
<b>Ekintzak:</b>					
2.2.1. Egun esanguratsuen artetik (Martxoak 8, ekainak 28, Azaroak 25, Maiatzak 17...) urtean behin haietako bat herriko emakumeekin era parte-hartzailean antolatu. Eta egitaraua egun horren aurreko edo ondorengo egunetara ere zabaldu; hitzaldiak, antzerkiak, mahai inguruak, etab. antolatuz. <i>Ekintza honek 1.3.1. eta 4.3.3. ekintzarekin lotura du.</i>					Gazteria, kirola eta kulturako zinegotzia(k) eta kultura teknikaria
2.2.2. Kirol mahaitek kirol ezberdinetan emakumeen parte hartzea sustatzeko ekintzak antolatzen jarraitzea. Emakumeek ere espazio publikoan kirola egin dezaten sustatzeari ere arreta jarritz. <i>Ekintza honek 1.1.4. ekintzarekin lotura du.</i>					Gazteria, kirola eta kulturako zinegotzia(k) eta kultura teknikaria
2.2.3. Kirol taldeen artean gaiaren inguruko sentsibilizazioa eta kontzientzia hartzea sustatzea herriko kirol taldeei bideratutako lanketak eginez.					Gazteria, kirola eta kulturako zinegotzia(k) eta kultura teknikaria
2.2.4. Haur eta gazteen artean beste kirol eredu bat sustatzen jarraitu, multi-kirolaren eta kirol gutxituak bultzatzearen bidetik.					Gazteria, kirola eta kulturako zinegotzia(k) eta kultura teknikaria

2.2.5. Udaletik bideratutako zein udalaren diru-laguntza bidez finantzatutako kultur ekintzetan emakumeen presentzia bermatzeko neurriak hartu. <i>Ekintza honek 1.8.2. ekintzarekin lotura du.</i>					Gazteria, kirola eta kulturako zinegotzia(k) eta kultura teknikaria
2.2.6. Udalerrian parte hartze mahai edo espazioak sortzean emakumeen eta gizonen arteko parte hartze orekatua bermatzeko neurriak hartu.					Gazteria, kirola eta kulturako zinegotzia(k) eta kultura teknikaria
2.2.7. Herriari ekarpena egin dioten edo/eta arloren batean nabarmendu diren emakumeak publikoki omenduz eta aitortuz jarraitu (esaterako, emakumeen kaleetako presentzia sinbolikoa): emakume kirolariak, musikariak, nekazariak, saregileak, etab.					Gazteria, kirola eta kulturako zinegotzia(k) eta kultura teknikaria
2.2.8. Udalerriko emakumeen historia berreskuratzeko ekimenak antolatu (bekak, ikerketak, ahozko artxibategia, etab.)					Gazteria, kirola eta kulturako zinegotzia(k) eta kultura teknikaria
2.2.9. Burutzen diren jai eta tradizioetako ekintza eta egitarauetako antolakuntza zein egikaritzean genero-berdintasuna bermatzea (jarduerak, ardurak banaketak, talde eragileen funtzionamendua...); horretarako, beharrezko denean, eskuragarri dauden baliabideak aztertu (gidak, azterlanak, etab.). <i>Ekintza honek 4.1.3. ekintzarekin lotura du.</i>					Gazteria, kirola eta kulturako zinegotzia(k) eta kultura teknikaria
2.2.10. Herrian eztabaida pizten duten ospakizunak nolakoak izan behar diren herritarrekin batera adosten jarraitzea, beti ere genero-ikuspegia bermatuz.					Gazteria, kirola eta kulturako zinegotzia(k) eta kultura teknikaria

3. EKONOMIAK ETA GIZARTE ANTOLAKUNTZA ERALDATZEA, ESKUBIDEAK BERMATZEKO	URTEA				Arduraduna
	2023	2024	2025	2026	
<b>3.1. HELBURUA: HERRITARRAK FEMINISMOAREN INGURUAN SENTSIBILIZATU ETA TREBATZEA</b>					
<b>Ekintzak:</b>					
3.1.1. Genero estereotipo eta rolak gainditzeko sentsibilizazio-kanpainak burutu. <i>Ekintza honek 3.3.2. eta 3.3.3. ekintzekin lotura du.</i>					Ongizateko zinegotzia eta gizarte langilea
3.1.2. Probintzia edo erkidego mailan beste erakundeek burutzen dituzten sentsibilizazio kanpainei bultzada eman					Ongizateko zinegotzia eta gizarte langilea
<b>3.2. HELBURUA: GENERO BERDINTASUNA OINARRI DUEN HEZKUNTZA EREDUA BULTZATZEA</b>					
<b>Ekintzak:</b>					
3.2.1. Hezkuntza komunitatean dagoeneko martxan dauden eta emaitza positiboak dituzten dinamikak mantendu eta indartzea (adibidez, guraso eskola).					Ongizateko zinegotzia eta gizarte langilea
3.2.2. Sare sozialen eta ikus-entzunezkoen erabilera egoki eta kritikoa sustatzeko kanpainak eta ekimenak antolatu hezkuntza komunitateko eragileekin batera.					Ongizateko zinegotzia eta gizarte langilea
3.2.3. Hezkuntza eragile eta komunitatearekin batera, batez ere hezkuntza ez formaleko eragileekin, genero-berdintasunean etengabeko formaziorako bideak definitzea, genero-berdintasuna modu isolatuan eta arazo zehatzei erantzunez lantzen den gaia izan ez dadin.					Ongizateko zinegotzia eta gizarte langilea

3.2.4. Liburutegiko langileak genero ikuspegian gaitu UEUK edota bestelako erakundeek eskaintzen dituzten ikastaroetan parte hartuz. <i>Ekintza honek 1.2.2. ekintzarekin lotura du.</i>					Ongizateko zinegotzia eta gizarte langilea
3.2.5. Liburutegian antolatzen diren ekintzetan eta eskaintzen den zerbitzuan genero ikuspegia kontuan izaten jarraitu eta bide berriak aztertzea (adib. Feminismoari buruzko apal bat sortu).					Ongizateko zinegotzia eta gizarte langilea
<b>3.3. HELBURUA: ETXeko eta Zaintza Lanetan Emakumeen eta Gizonen Parte Hartze Oreakatua Areagotu eta Zaintza Lanetan Dabiltzan Pertsonen Baldintza Duinak Bermatzea</b>					
<b>Ekintzak:</b>					
3.3.1. Dependentsia egoeran dauden pertsonen zaintzan dabiltzan migratutako emakumeen lan prekarizazioari aurre egiteko dauden baliabideak eskuragarri jarri.					Ongizateko zinegotzia eta gizarte langilea
3.3.2. Zaintza lanak balioan jarri eta erdigunean kokatzeko sentsibilizazio lana garatu. <i>Ekintza honek 3.1.1. ekintzarekin lotura du.</i>					Ongizateko zinegotzia eta gizarte langilea
3.3.3. Eraikin eta iruditeri publikoetan genero estereotipoak elikatzen dituzten sinbolo eta azpiegiturak ekidin. <i>Ekintza honek 3.1.1. ekintzarekin lotura du.</i>					Ongizateko zinegotzia eta gizarte langilea
3.3.4. Udalak antolatzen dituen ekimenetan ordutegiaren egokitasuna zaintzen jarraitu, emakumeek ere parte hartu ahal izateko.					Ongizateko zinegotzia eta gizarte langilea
3.3.5. Haurtzaindegi zerbitzua eskaintzeko aukera baloratu udalak antolatzen ekintza eta bestelakoetan: ekintzaren, xede taldearen, eta abarren arabera.					Ongizateko zinegotzia eta gizarte langilea

4. EMakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzak	URTEA				Arduraduna
	2023	2024	2025	2026	
<b>4.1. HELBURUA: Sentsibilizazioa eta prebentzioa lantzea</b>					
<b>Ekintzak:</b>					
4.1.1. Urtero Estatu Ituneko diru-laguntzarekin ekintzak aurrera eraman: sentsibilizazioa eta prebentzioa, aholkularitza, etab.					Ongizateko zinegotzia eta gizarte langilea
4.1.2. Herritar guztiek indarkeria matxistaren prebentzio/arretarako baliabideen berri izan dezaten bermatzeko gida bat sortu eta periodikoki zabaldu.					Ongizateko zinegotzia eta gizarte langilea
4.1.3. Jaietan indarkeriaren prebentziorako berriazko plangintza egin: puntu morearen aukera baloratu, aurrez indarkeriaren prebentziorako materiala sortu eta banatu, etab. <i>Ekintza honek 2.2.9. ekintzarekin lotura du.</i>					Ongizateko zinegotzia eta gizarte langilea
4.1.4. Herriko kaleak seguruagoak egiteko, eta etorkizuneko proiektuetan gune ilunak edo bestelako arriskuak ekiditeko, arkitektoa genero ikuspegian gaitu UEUK edota Arkitektoen elkargoak eskaintzen dituen ikastaroetan parte hartuz. <i>Ekintza honek 1.2.2. ekintzarekin lotura du.</i>					Ongizateko zinegotzia eta gizarte langilea
4.1.5. Herriko emakumeentzat autodefentsa feminista ikastaroak eskaini. <i>Ekintza honek 2.1.2. ekintzarekin lotura du.</i>					Ongizateko zinegotzia eta gizarte langilea
<b>4.2. HELBURUA: Indarkeria Matxistaren Biktima izan diren emakumeei arreta integrala bermatzea, ahalduntze ikuspegitik</b>					
<b>Ekintzak:</b>					



4.2.1. Sentsibilizazioan, salaketan zein esku-hartzean lanean jarraitzea eta indarkeria jasaten duten emakumeei tratu egokia bermatzea.					Ongizateko zinegotzia eta gizarte langilea
4.2.2. Indarkeria matxista jasan duten emakumeei arreta eskaintzen dieten udal langileei (gizarte langilea, udaltzainak...) berariazko formazioa eskaini (adibidez, Jabetuz programa) <i>Ekintza honek 1.2.2. ekintzarekin lotura du.</i>					Ongizateko zinegotzia eta gizarte langilea
4.2.3. Herrian egon diren indarkeria matxista kasuen datuak sistematikoki bildu (udalarenak eta beste erakundeenak) eta aztertzea. Eta aproposa kontsideratzen denean, Azaroaren 25ean adibidez, datuak publiko egin (beti ere erabateko anonimotasuna bermatuz).					Ongizateko zinegotzia eta gizarte langilea
<b>4.3. HELBURUA: UDALAK INDARKERIA MATXISTAREN AURKAKO JARRERA IRMOA IZAN ETA ADIERAZTEA</b>					
<b>Ekintzak:</b>					
4.3.1. Udaletik sistematikoki eta publikoki gertatzen diren emakumeen kontrako indarkeria kasuak salatzen jarraitu.					Ongizateko zinegotzia eta gizarte langilea
4.3.2. Udaletik arlo honetan egiten diren ekintzak (protokoloak, gidak, etab.) herritarrei berariaz helarazi.					Ongizateko zinegotzia eta gizarte langilea
4.3.3. Egun zehatzetan (M 17, A25...) udalaren jarrera azalduz irakurketa publikoa kaleratu eta bestelako komunikazio ekintzak burutu (mezuak udaleko balkoitik, etab.) <i>Ekintza honek 1.3.1. eta 2.2.1. ekintzekin lotura du.</i>					Ongizateko zinegotzia eta gizarte langilea

# Antolaketa eredua eta baliabideak

## EGITURA

Genero Berdintasuna Udaleko jardunean eraginkortasunez txertatzeko ezinbestekoa da gaiari berariaz helduko dion egitura bat egotea, eta, halaber, Udalaren sail guztiek euren jardunean ere genero ikuspegia txertatzea. Alegia, lanketa espezifikoa eta zeharkako ikuspegia uztartzea. Horretarako, bi geruzako lan egitura artikulatuko da.

### TALDE ERAGILEA


#### OSAERA

7 kidek osatuko dute.

4 arduradun politiko: alkatea; Kultura zinegotzia, Kiroleko zinegotzia eta Gizarte ongizateko zinegotzia.

3 teknikari: idazkaria, kultura, kirola eta gazteria teknikaria eta gizarte langilea.

Alegia, 3 bikote, ordezkari instituzionala eta teknikaria. Bikote bakoitzak planaren esku hartze eremu jakin baten ardura nagusia izanen du.



### FUNTZIOA

### LAN DINAMIKA

Planaren garapenaren ardura nagusia izango du, trakzio lana eginez. Lidergo partekatua bidez, udaleko langileen aurrean zein getiarrei begira gaiaren erreferentzialtasuna landuko du.

Hirukiaren hanka bakoitzak bere ardurapeko gaiak aurrera eramateaz, eta, hala dagokionean, hirugarren batek bere ardurapeko lan jakin horiek aurrera eramango dituela bermatzeaz arduratuko da. Horretarako bikote bakoitzak bere ardurapeko gaia garatzeko dinamika propioa definituko du, eta taldeak bere osoan hiru hiletik behin koordinazio bilerak egingen ditu. Koordinazio bilerak deitu eta gidatzeko ardura alkateak eta idazkariak izango dute. Aurrerago funtzio hori txandaka bete daitekeen baloratuko da.

## SAILEN ARTEKO KOORDINAZIO MAHAIA

### OSAERA

Udaleko langile guztiek (edo sail bakoitzeko ordezkari batek) eta udal gobernua osatzen duten ordezkari politikoek osatuko dute.

### FUNTZIOA

Planari lotutako lanak udalaren egitura osoan inplementatzeko gunea da. Lanen banaketa eta jarraipena egitea izanen ditu funtzio nagusi.

### LAN DINAMIKA

Urtean bitan egingen ditu bilerak. Bilerak deitu eta gidatzeko ardura Talde Eragilearena izango da.

Plana abian jartzeko bi egitura horiek martxan jarriko dira lehentasunez. Eta planaren aurrerabideak helburu izanen du hirugarren geruza bat martxan jartzea: udala eta udalerrria harremanetan jartzen duena, hain zuzen ere.

## BERDINTASUN MAHAIA

### OSAERA

Herriko eragileak (mugimendu feminista, emakume taldeak, interesa duten norbanakoak) eta talde eragileko ordezkari instituzionalak eta teknikariak.

### FUNTZIOA

Planaren jarraipen orokorra egitea eta proposamenak prestatzea. Elkarlanerako ekimenak adosteko gunea ere izango da.

### LAN DINAMIKA

Urtean bitan elkartuko da.

## AURREKONTUA

Gaur egun Getariako Udalak Genero Berdintasuna lantzeko aurrekontuaren %0,14 bideratzen du. Plana indarrean jartzeko kopuru hori bikoizteko erabakia hartu du, planaren lehen aplikazio urtean %0,28ra eramanez, eta indarraldi osoan zehar gutxienez kopuru hori mantenduz. Kopuru horren barruan ez dago sartuta planean lanean ariko diren pertsonen gastua. Alegia, berariaz, planaren ekintzak gartzeko aurrekontua da. Partida hori izenduna izango da eta alkatetzaren barruan kokatuko da.

# Jarraipen eta ebaluaziorako sistema

## JARRAIPENA, EBALUAZIOA ETA EGUNERATZEA

Berdintasunerako Plan Estrategikoa urteko gestio planen bidez garatuko da. Horretarako, jarraipen tresna bat baliatuko da. Bertan, alde batetik, planaren 4 urteko ikuspegia egonen da.

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako I. Plana						
HELBURUAK, NEURRIAK, EPEAK ETA ARDURADUNAK						
Ekintzak	2023	2024	2025	2026	Arduradunak	Adierazleak
<b>1. GOBERNU ONA</b>						
<b>1.1. HELBURUA: BERDINTASUN POLITIKAK GARATZEKO EGITURAK ANTOLATU ETA ELKARLAN BIDEAK GARATU</b>						
1.1.1. Berdintasunerako Talde Eragileak sortu eta hiru hilean behin koordinazio eta jarraipen bilera burutu.	X	X	X	X	Alkatea eta idazkaria	Bilerak
1.1.2. Udal langileen arteko koordinazio gunea sortu eta urtean bi aldiz (martxoan eta urrian) egindako lanen berri eman eta ekarpenak jasotzeko.	X	X	X	X	Alkatea eta idazkaria	Bilerak
1.1.3. Berdintasun mahaiak sortzeko ideia aztertzea (udala eta gizarte eragile zein herritarrek) eta bideragarria ikusten bada martxoan jarri.				X	Alkatea eta idazkaria	Gaia aztertzeko bilera
1.1.4. Berdintasunerako berariaz bideratuta ez dauden batzorde/mahaien zereginen eta helburuen artean berdintasunaren sustapena txertatu. <i>Ehiztoz honen 2.2.2. ehiztoz erekin lotura du.</i>			X	X	Alkatea eta idazkaria	Kirol mahaiako estatutuak
1.1.5. Berdintzearen parte hartzen jarraitu.	X	X	X	X	Alkatea eta idazkaria	Lankidetzazko hitzarmena
<b>1.2. HELBURUA: POLITIKARIAK ETA LANGILEAK BERDINTASUN POLITIKAK GARATZEKO TREBATU</b>						
1.2.1. Talde eragileko kideen prestakuntza beharrik (orokorrak eta espezifikak) zehaztu eta garatu: kideak berdintasun plana garatzeko gaitzea.	X				Alkatea eta idazkaria	Formazio saioa
1.2.2. Emakunde, IVAPek, Berdintzearen... urtero eskaintako ikastaroetatik, ahal dela, gutxienez bat gauzatu langile eta politikari guztiek, gaiaren eta profilaren arabera.	X	X	X	X	Alkatea eta idazkaria	Prestakuntza eskaintzaren zerrenda Formazio saioak
1.2.3. Generoa eta beste desberdinkeria batzuen arteko intersektionalitatea lantzeko <b>BILTZEN</b> zerbitzuak egiten duen eskaintza ezagutu eta zerbitzua baliatu.			X	X	Alkatea eta idazkaria	Egindako bilera Lantutako gaiak

Bestetik, urtekako gestio plana.

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako I. Plana															
2023ko GESTIO PLANA															
Ekintza Plana	U	O	M	A	M	E	U	A	I	A	A	ARD.	OHARRAK	ADIERAZLEAK	BETETZE MAILA
<b>1. GOBERNU ONA</b>															
<b>1.1. HELBURUA: BERDINTASUN POLITIKAK GARATZEKO EGITURAK ANTOLATU ETA ELKARLAN BIDEAK GARATU</b>															
1.1.1. Berdintasunerako Talde Eragileak sortu eta hiru hilean behin koordinazio eta jarraipen bilera burutu.													Alkatea eta idazkaria	Bilerak	
1.1.2. Udal langileen arteko koordinazio gunea sortu eta urtean bi aldiz (martxoan eta urrian) egindako lanen berri eman eta ekarpenak jasotzeko.													Alkatea eta idazkaria	Bilerak	
1.1.5. Berdintzearen parte hartzen jarraitu.													Alkatea eta idazkaria	Lankidetzazko hitzarmena	
<b>1.2. HELBURUA: POLITIKARIAK ETA LANGILEAK BERDINTASUN POLITIKAK GARATZEKO TREBATU</b>															
1.2.1. Talde eragileko kideen prestakuntza beharrik (orokorrak eta espezifikak) zehaztu eta garatu: kideak berdintasun plana garatzeko gaitzea.													Alkatea eta idazkaria	Formazio saioa	
1.2.2. Emakunde, IVAPek, Berdintzearen... urtero eskaintako ikastaroetatik, ahal dela, gutxienez bat gauzatu langile eta politikari guztiek, gaiaren eta profilaren arabera.													Alkatea eta idazkaria	Prestakuntza eskaintzaren zerrenda Formazio saioak	

Talde eragileak tresna horren laguntzaz 3 hilean behin egiten du urteko planaren jarraipena. Urte hasieran ekintza plana definituko du. Horretarako beharrezkoak diren azpi-ekintzak diseinatuko ditu. Urte bukaeran sail arteko koordinazio mahaiarekin urteko ebaluazioa egingo du.

Tresnan honakoak jasotzen dira:

- Helburuak
- Ekintzak
- Arduradunak
- Kronograma
- Adierazleak
- Betetze maila

## ADIERAZLEAK

Adierazleak egoera edo errealitate baten inguruko informazioa ematen duten neurgailuak dira. Egindako esku hartzearen betetze maila eta eraginkortasuna neurtzeko tresnak dira, eta, beraz, ezinbestekoak ebaluaziorako. Komenigarria da, halaber, horiek jasotzean, garapenaren berri emateko moduan jasotzea.

Planaren jarraipena egingo da, bi mailatako adierazleekin. Komenigarria izango da adierazle horiek Getariako Udalaren ohiko kudeaketa moduetan txertatzea:

- **Prozesuaren adierazleak edo ekintzaren betetze maila:**  
Aurreikusitako lana egiten ari den ala ez behatzeko erabiliko da. Azken finean, Planean jasotako ekintzen betetze mailaz ari gara, eta horiei jarraipena egin beharko zaie hiru hilean behin, Talde eragilea biltzen den bakoitzean. Helburu bakoitzak hainbat ekintza ditu. Gehienak honela neurtuko ditugu: “egin da / ez da egin”. Eta betetze maila hori semaforoaren koloreen bidez adieraziko da.
- **Inpaktu adierazleak:**  
Udalaren politikan eta Udalerri mailan berdintasunari dagokionez egindako aurrerapenak ikusteko neurgailuak dira. Epe luzeko bilakaera adieraziko dute. Lehen plangintzaldi honetan zer inpaktu neurtu nahi den zehaztu eta horiek neurtzen hastea izanen da helburu.

## PDCA ZIKLOA

Getariako plana etengabeko hobekuntzarako zikloaren bitartez garatuko da, hau da, kudeaketa sistematikoaren bidez: Planifikatu - Egin - Egiaztatu - Doitu zikloa.



Ziklo honek jarduerak nola garatu behar diren ezartzen du, jarduera horiek etengabe hobetzeko helburuarekin. Hau da PDCA zikloak proposatzen duen jarduera-eskema:

1. **Planifikatu:** jarduera bat abiarazteko, zer egin nahi dugun eta nola egin behar dugun argi izan behar dugu, mugarriak argi izanez eta helburu zehatzak finkatuz.
2. **Egin / garatu:** jarduera hori gauzatu behar da, planifikatu dugunaren arabera.
3. **Neurtu / egiaztatu:** jardueraren inguruko adierazleak neurtu eta helburuak bete diren ebaluatu behar dugu.
4. **Doitu /hobetu:** gertatutakoaren arabera eta lortutako emaitzen arabera, jarduera hori nola burutu behar den egokitu, beharrezkoak diren hobekuntzak eta berrikuntzak proposatuz.

# I. ERANSKINA: Diagnostikoan identifikatutako aurrera begirako erronkak

Ondorengo lerroetan, diagnostiko prozesuan zehar identifikatu ziren erronka nagusiak jasotzen dira. Hala ere, errealitatea etengabeko mugimenduan dago eta ondorioz, ondoren jasotzen dena ez da zerrenda mugatu bat, bidean sortu edo identifikatzen diren hutsune, eginbehar edo gabeziek ere tokia izan(go) dutelarik planaren diseinuan zein inplementazioan.

## GOBERNU ONA

- [Udalaren osaera politikoa eta teknikoa] Udalaren osaera politikoari dagokionez, gai banaketetan ohiko rol tradizionalen arabera banaketa gainditzea, eta ordezkarien genero-mandatuen arabera egotzen ez zaizkien gaien ardura eta inplikazioa sustatzea.
- [Udalaren osaera politikoa eta teknikoa] Langileen artean ematen den segregazio horizontala gainditzea.
- [Udalaren osaera politikoa eta teknikoa] Ohiko rol tradizionalak gainditzen dituzten udal langileei ikusgarritasuna ematea, eredugarritasuna eta erreferentzialtasuna lantze aldera.
- [Udalaren osaera politikoa eta teknikoa] Garbiketa zerbitzua eta etxez etxeko laguntza zerbitzua, bere osotasunean emakumez osatua daudenak, kontratazio zuzen bidez kudeatzeak langileentzat zein onura eta kalte izango lituzkeen aztertu eta horren arabera bidea egitea.
- [Udalaren osaera politikoa eta teknikoa] Berdintasuna zeharka lantzeko udal langile zein politikarien ezagutza bermatzea:
  - o [Espazioaren erabilera, urbanismoa eta mugikortasuna] Burutzen diren hirigintzarekin lotutako plangintzetan genero-ikuspegia txertatzea. Horretarako lan horietan eskuhartzen duten pertsonen sentsibilitatea eta formazioa landu.
  - o [Gizarte zerbitzuak eta osasuna] Ematen den arreta balioan jarri eta lana genero-ikuspegia kontuan izanez burutzeko baliabidez hornitzea langileak.
  - o [Euskara] Etorkizuneko balizko euskara mahaian genero-ikuspegia bermatu, horretarako kideen kontzientzia eta sentsibilizazioan eraginez.

- [Zahartzaroa] Gaur egun burutzen ari den pertsona nagusiei buruzko ikerketan genero-ikuspegia txertatzea.
- [Udal komunikazioa] Indarrean dauden euskarrietan komunikazio ez sexista erabiltzen dela bermatzea.
- [Udal komunikazioa] Politikari zein teknikariak hizkuntzaren erabilera ez-sexistan eta komunikazio inklusiboan trebatzea.
- [Genero-berdintasuna] Udalean genero Berdintasuna lantzeko egitura bermatzea, etorkizunean diseinatzen diren plan eta ekintzak kudeatuko dituen.
- [Genero-berdintasuna] Emakumeen ahalduntzea sustatzea eta askotariko emakumeak sartzeko espazioak eta baliabideak eskaintzea.
- [Genero-berdintasuna] Herriko eragile eta norbanako feministen ekarpenak jaso eta elkarlana bideratzeko kanal formalak sortzea.

## EMAKUMEEN AHALDUNTZEA

- [Kultura] Kulturgintzan ohiko rol tradizionalak gainditzea.
- [Kultura] Kulturgintzan herriko emakumeek historikoki egindako ekarpena aitortu eta balioan jartzea.
- [Kirola] Herriko kirolean dagoen desoreka murriztea, emakumezkoen partehartzea sustatuz, eta horretarako kirol esparrua beraientzat espazio segurua izan dadin landuz.
- [Kirola] Herriko emakume kirolarien eta herrian bertan kirola egiten duten emakumeak bistaratzea.
- [Kirola] Herriko kirol taldeetako erabaki guneeetan emakumeen parte hartzea sustatzea.
- [Kirola] Kirol taldeen artean gaiaren inguruko sentsibilizazioa eta kontzientzia hartzea sustatzea.
- [Euskara] Herrian nokaren erabileraren egoera ezagutu, eta ahalduntze prozesu baten baitan hori indartzeko aukerak aztertu beste herri batzuetako esperientziak baliatuz.
- [Euskara] Euskalgintzan emakumeek egiten duten ekarpena ikustarazi eta aitortu.
- [Zahartzaroa] Emakume nagusien ahalduntzea sustatzera bideratutako formazio eta sentsibilizazioa lantzea, beraiek ere gizarte aldaketan subjeto aktibo izan daitezen.
- [Migrazioa eta aniztasuna] Zapalkuntza anizkoitzek emakume migratuen bizitzetan nola eragiten duten kontuan hartuta, emakume horien ahalduntzea sustatzea.

- [Migrazioa eta aniztasuna] Emakume migratuen saretzea sustatzeko baliabideak sustatu.
- [Migrazioa eta aniztasuna] Emakume migratu askoren lan prekarizazioari aurre egiteko baliabideak sortu eta eskuragarri jarri, emakume migratuak ahaldu eta bizi ditzaketen babesgabetasun egoerei aurre egiteko tresnak eskuratzen laguntzeko.
- [Espazioaren erabilera, urbanismoa eta mugikortasuna] Emakumeen kaleetako presentzia sinbolikoa lantzen jarraitzea.

## EKONOMIAK ETA GIZARTE ANTOLAKUNTZA ERALDATZEA, ESKUBIDEAK BERMATZEKO

- [Sozioekonomia] Enpleguaren alorrean ematen den segregazio horizontala gainditu eta enpleguan argazki orekatuagoa lortzera bidean urratsak ematen jarraitzea.
- [Zaintza lanak] Zaintza eta etxeko lanetan gizonetzkoen inplikazioa sustatzea.
- [Zaintza lanak] Uda garaian lan egiten duten pertsonen zaintza ardurak betetzen laguntzeko bideak aztertu eta martxan jartzea.
- [Zaintza lanak] Kontratazio pribatu bidez asetzen diren zaintza beharretan oinarritako baldintzak bete daitezzen, kontzientziazioa lantzea, horretarako materiala informatiboa sortu eta zabalduz.
- [Gazteria eta hezkuntza] Hezkuntza eragile eta komunitatearekin batera genero-berdintasunean etengabeko formaziorako bideak definitzea, genero-berdintasuna modu isolatuan eta arazo zehatzei erantzunez lantzen den gaia izan ez dadin.
- [Gazteria eta hezkuntza] Dagoeneko martxan dauden eta emaitza positiboak dituzten dinamikak mantendu eta indartzea (adibidez, guraso eskola).
- [Gazteria eta hezkuntza] Haurrengan eragiteko guraso eta gainerako herritarren erreferentzialtasuna lantzea.
- [Migrazioa eta aniztasuna] Emakume migratuek egiten duten lana eta horren garrantzia balioan jarri eta hori duintzeko moduetan sakontzea.

## EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARIK GABEKO BIZITZA

- [Jaiak] Jai eremuak zapalkuntzarik gabeko espazio seguruak izan daitezzen sentsibilizazio eta prebentzio neurriak lantzea.
- [Jaiak] Burutzen diren ekintzetan eta jai egitarauan genero-berdintasuna bermatzea,



- [Jaiak] Herrian eztabaida pizten duten ospakizunak nolakoak izan behar diren herritarrekin batera adosten jarraitzea, beti ere genero-ikuspegia bermatuz.
- [Espazioaren erabilera, urbanismoa eta mugikortasuna] Herriko eremu kaleak seguruagoak egitea; horretarako, gune ilunak identifikatu eta horiek eraldatzeko neurriak hartuz.
- [Espazioaren erabilera, urbanismoa eta mugikortasuna] Herriko espazio ezberdinetara, eta batez ere, oinarrizko zerbitzuak eskaintzen dituzteen guneetara irisgarritasuna bermatzea.
- [Genero-berdintasuna] Setsibilizazioan, salaketan zein esku-hartzean lanean jarraitzea eta indarkeria jasaten duten emakumeei tratu egokia bermatzea.
- [Genero-berdintasuna] Indarkeria matxistaren inguruko sentsibilizazioa eta prebentzioa lantzea eta herritar guztiek indarkeria matxistari aurre egiteko dauden baliabideen berri izan dezaten bermatzea.